# NORA ZOAZ?



# NORA ZOAZ?

## METODO INTUITIVO Y AMENO PARA APRENDER EUSKERA

Primer premio, de 50.000 pesetas otorgado por la CAJA DE AHORROS VIZCAINA en el Concurso organizado al efecto por "Euskerazaleak".

Por el P. Iñaki de Goikoetxea, S. J.
Ilustraciones de Luis de Larrínaga.

Edita:
EUSKERAZALEAK, "Asociación para el fomento del Vascuence".

Colón de Larreátegui, 14-2.° dcha.-Tel 424.50.59-BILBAO

CON LAS DEBIDAS LICENCIAS

# NORA ZOAZ?

**EUSKERA IKASTEKO**

**BIDE**

**ONA eta POLITA.**

Bilbo'ko «Euskerazaleak» antolatututako Txapelketan lenengo saria irabazi eban «Euskera ikasteko bidea».

Goikoetxea'tar Iñaki
Jesus'en Lagundikoak egiña,
eta
Larrinaga'tar Koldobika'k
irudiz apaindua.

Loyola'n 1969'ko Iñaki Deunaren egunean.



















| | |
|---|---|
| **TXAKURRA . . . .** | **TXAKURRAK** |
| **KATUA . . . . . . .** | **KATUAK** |
| **ETXEA . . . . . . .** | **ETXEAK** |
| **ZUGATZA . . . . .** | **ZUGATZAK** |

**Txakurra eta katua.**
**Etxeak eta zugatzak.**
**Txakurrak eta katuak.**
**Etxea eta zugatza.**

Etxea, txakurrak, zugatza
eta katua.
Katuak, etxeak, zugatza
eta txakurra.

Txakurra, katua eta zugatzak.






**BALTZA**

**ZURIA**

**ELEIZA ANDIA.**
**TXAKUR TXIKIA.**
**KATU ZURIAK.**
**ETXE BALTZAK.**
**ELEIZA BARRIA.**
**ZUGATZ ZARRAK.**




| | |
|---|---|
| **Etxe txikia......** | **etxetxoa.** |
| **Txakur txikia...** | **txakurtxoa.** |
| **Katu txikia......** | **katutxoa.** |
| **Txori txikia......** | **txoritxoa.** |

Etxetxoak eta txoritxoak.
Txakurtxoak eta katutxoak.




Etxe zarra, eleiza barria eta zugatz andiak.
Katu baltza, katu zuria eta txori txikiak.
Eleiza barria, etxe zarra, katutxoak eta txakurtxoak.
Etxetxoak, txakur andia, katu zuria eta txoritxoak.

Txakur txiki eta baltza. Zugatz andiak eta zarrak.
Etxe zuri eta barria. Txakur zarra eta baltza.
Txakurtxoa eta katutxoak. Eleiza andia eta txoritxoak.

NI NAZ



ZU ZARA



BERA DA



GU GARA



ZUEK ZARIE



EURAK DIRA





# ¿ZU NOR ZARA?




## IÑAKI ETA MIREN TXIKIAK DIRA

### ALKARRIZKETA

Iñaki'ri. — Zu nor zara?
— **Ni Iñaki naz.**
— Iñaki, zu txikia zara?
— **Bai, ni txikia naz.**
— Eta etxea zuria da?
— **Bai, etxea zuria da.**

Miren'i. — Zu nor zara?
— **Ni Miren naz.**
— Miren, txakurrak andiak dira?
— **Bai, txakurrak andiak dira.**
— Eta zugatzak zarrak dira?
— **Bai, zugatzak zarrak dira.**

Guztiai. — Zuek txikiak zarie?
— **Bai, gu txikiak gara.**
— Eta Iñaki eta Miren txikiak dira?
— **Bai, Iñaki eta Miren txikiak dira.**






| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Ni | ona | naz . . . . . | Ni | ez naz | gaiztoa. |
| Zu | ona | zara . . . . | Zu | ez zara | gaiztoa. |
| Bera | ona | da . . . . . | Bera | ez da | gaiztoa. |
| Gu | onak | gara . . . . | Gu | ez gara | gaiztoak. |
| Zuek | onak | zarie . . . | Zuek | ez zarie | gaiztoak. |
| Eurak | onak | dira . . . . | Eurak | ez dira | gaiztoak. |

## ALKARRIZKETA

— Artzaiña gaiztoa da?
— **Ez, artzaiña ez da gaiztoa. Artzaiña ona da.**
— Ardiak gaiztoak dira?
— **Ez, ardiak ez dira gaiztoak. Ardiak onak dira.**
— Artza, leoia eta azeria onak dira?
— **Ez, artza, leoia eta azeria ez dira onak.**
**Artza, leoia eta azeria gaiztoak dira.**
— Erria andia da?
— **Ez, erria ez da andia. Erria txikia da.**
— Zuek andiak zarie?
— **Ez, gu ez gara andiak. Gu txikiak gara.**
— Eta eguzkia ona da?
— **Bai, eguzkia ona da.**

Nortzuk dira gaiztoak?

.................... eta .................... eta .................... dira gaiztoak.

Nortzuk dira onak?

.................... eta .................... eta .................... dira onak.




LEOIA GAIZTOA DA

# ¿NORENA?



LOREA NIREA DA.
NIRE LOREA DA.

**NI - NIREA**

LOREA ZUREA DA.
ZURE LOREA DA.



**ZU - ZUREA**



**BERA - BEREA**

LOREA BEREA DA.
BERE LOREA DA.




**GU - GUREA**

**ZUEK - ZUENA**

**EURAK - EURENA**






Lorea nirea da.
Lorak nireak dira.
Mamarro motza berea da.

## ALKARRIZKETA

— Lorea norena da?
— **Lorea nirea da.**
— Lorak norenak dira?
— **Lorak nireak dira.**
— Zure lorak politak dira?
— **Bai, nire lorak politak dira.**

— Mamarroa motza da?
— **Bai, mamarroa motza da.**
— Mamarro motza zurea da?
— **Ez, mamarro motza ez da nirea.
Mamarro motza berea da.**

Gure katua Pitxitxi da.
Pitxitxi polita eta ona da.
Zuen txakurra Ton da.
Ton baltza eta motza da.

## ALKARRIZKETA

— Pitxitxi katua norena da?
— **Pitxitxi katua gurea da.**
— Zuen katua motza da?
— **Ez, gure katua ez da motza.
Gure katua polita da.**

— Ton zuen txakurra da?
— **Bai, Ton gure txakurra da.**
— Zuen txakurra polita da?
— **Ez, gure txakurra ez da polita.
Gure txakurra motza da.**



**MAMARRO MOTZA**















**LORA AU...TXITA ONEIK.**
**OILLO ORI..ARRAUTZA ORREIK.**
**OILLAR A .....TXORI AREIK.**

Au zer da?... Au lorea da.
Ori zer da?... Ori oilloa da.
A zer da?... A oillarra da.

## ALKARRIZKETA

— Lora au polita da?
— **Bai, lora au polita da.**
— Txita oneik txikiak eta politak dira?
— **Bai, txita oneik txikiak eta politak dira.**
— Txori areik andiak dira?
— **Ez, txori areik ez dira andiak. Txori areik txikiak dira.**
— Oillo ori gaiztoa da?
— **Ez, oillo ori ez da gaiztoa. Oillo ori ona da.**
— Arrautza txiki orreik zuriak dira?
— **Bai, arrautza txiki orreik zuriak dira. Politak dira.**




Gizon au aita da eta Mikel da bere izena.
Andra au ama da eta Arantza da bere izena.
Miren eta Iñaki txikiak dira. Umeak dira.
Miren eta Iñaki Arantza'ren eta Mikel'en seme-alabak dira. Ume onak dira.

## ALKARRIZKETA

— Iñaki, gizon au nor da? Zelan da bere izena?
— **Gizon au nire aita da. Mikel da bere izena.**
— Miren, andra au nor da? Zelan da bere izena?
— **Andra au nire ama da. Arantza da bere izena.**
— Eta gizon zar a nor da?
— **Gizon zar a gure aitaita da. Gure aitaren aita da.**
— Eta andra a nor da?
— **Andra a gure amama da. Gure aitaren ama da.**



## ITZIAR eta EDURNE




— Ume, zelan da zure izena?
— **Edurne da nire izena.**
— Izen polita da. Eta ume ori nor da?
— **Ume ori nire laguna da.**
— Zelan da bere izena?
— **Itziar da bere izena.**

Edurne eta Itziar lagunak dira.
Bai, lagun onak dira.
Gu be zuen lagunak gara.
Au, ori, zuek eta gu,
lagun onak gara.

## ALKARRIZKETA

— Umeak, azeria ardiaren laguna da?
— **Ez, azeria ez da ardiaren laguna.**
— Eta txakurra eta katua lagunak dira?
— **Ez, txakurra eta katua ez dira lagunak.**
— Zuek aitaren eta amaren lagunak zarie?
— **Bai, gu aitaren eta amaren lagunak gara.**




— Umeak, geldi!!!
Zer da ori? Burrukan?
Burrukarik ez!!!
Zelan da zuen izena?
— **Nire izena Patxi da.**
— **Eta nirea Txomin.**
— Patxi eta Txomin,
zuek lagunak zarie?
— **Ez, gu ez gara lagunak.**
**Gu arerioak gara.**
— Bai, txakurra eta katua
be arerioak dira.
Lagun onak izan!!!






# GURE ETXEA




Bai, polita da gure etxea: txiki-txiki, zuri-zuri.
Bai, andia da gure txakurra. Ton da bere izena.
Txakur andi eta katu txiki.
Lora zuri eta txori txiki.
Bai, polita da gure etxea: txiki-txiki, zuria.

Txita zuriak norenak dira? Txiki-txiki, zuri-zuri.
Txita txikiak gureak dira, gure amatxorenak.
Txita txiki eta oillo andi.
Lagun onak gara zu eta ni.
Bai, polita da gure etxea: txiki-txiki, zuria.

## ORAIN

| | |
|---|---|
| NI | NAZ. |
| ZU | ZARA. |
| BERA | DA. |
| GU | GARA. |
| ZUEK | ZARIE. |
| EURAK | DIRA. |

## LEN

| | |
|---|---|
| NI | IZAN NAZ. |
| ZU | IZAN ZARA. |
| BERA | IZAN DA. |
| GU | IZAN GARA. |
| ZUEK | IZAN ZARIE. |
| EURAK | IZAN DIRA. |

## GERO

| | |
|---|---|
| NI | IZANGO NAZ. |
| ZU | IZANGO ZARA. |
| BERA | IZANGO DA. |
| GU | IZANGO GARA. |
| ZUEK | IZANGO ZARIE. |
| EURAK | IZANGO DIRA. |





# JAUNGOIKOA ONA DA




JAUNGOIKOA LEN IZAN DA.
JAUNGOIKOA ORAIN —— DA.
JAUNGOIKOA GERO IZANGO DA.

Jaungoikoa len, orain eta beti izan da, eta beti izango da. Jaungoikoa betikoa da.

Jaungoikoa gure aita da. Jaungoikoa ona da. Jaungoikoa gure lagun ona beti izango da.

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

Aintza Aitari,
eta Semeari,
eta Espiritu Santuari.
Len lez orain, beti,
eta amaibako egunetan.
Amen.

Jaungoiko gure laguna,
Zu zara gure aita ona.
Gu zure semeak gara.
Zu beti ona zara.
Gu be onak izango gara.




# NOIZ?
# LEN, ORAIN, GERO

Txoritxoak
len arrautzak...... izan...... dira,
orain txori txikiak.............dira,
eta gero txori andiak izango dira.

Andoni
len ume txikia......izan...da,
orain mutilla..................da,
eta gero gizon andia izango da.

Karmele
len ume txikia izan.....da,
orain neskatilla..........da,
eta gero andrea izango......da.

| | | |
|---|---|---|
| Len | izan | naz. |
| Orain | ........ | naz. |
| Gero | izango | naz. |

Ez naz izan.
Ez naz.
Ez naz izango.

— Karmele, zu ume txikia zara?
— **Ez, ni ez naz ume txikia.**
**Ni len bai ume txikia izan naz,**
**baiña orain neskatilla naz,**
**eta gero andrea izango naz.**
— Andoni, zu umea zara?
— **Ez, ez, ni ez naz umea. Ni**
**mutil andia naz, eta gero**
**etxeko jauna izango naz.**
— Txoritxoak len
zer izan dira?
— **Txoritxoak len**
**arrautzak izan dira.**



# ¿ZENBAT DIRA?


Bat.


Bi.


Iru.


Lau.


Bost.


Sei.


Zazpi.


Zortzi.


Bederatzi.


Amar.


Amaika.


Amabi.



# BAT, BI, IRU, LAU.




| | | | |
|---|---|---|---|
| 100 | Eun. | 600 | Seireun. |
| 200 | Berreun. | 700 | Zazpireun. |
| 300 | Irureun. | 800 | Zortzireun. |
| 400 | Lareun. | 900 | Bederatzireun. |
| 500 | Bosteun. | 1.000 | Milla. |

Bat eta bi gitxi dira... Eun eta milla asko dira.

# BATUKETA



**Zenbat txori dira?**

| | |
|---|---|
| 11 | Amaika |
| +8 | eta zortzi, |
| 19 | emeretzi dira. |

**Zenbat etxe dira?**

| | |
|---|---|
| 1 | Bat |
| +1 | eta bat, |
| 2 | bi dira. |

**Zenbat lora dira?**

| | |
|---|---|
| 5 | Bost |
| +6 | eta sei |
| +3 | eta iru, |
| 14 | amalau dira. |

**Zenbat sagar dira?**

| | |
|---|---|
| 11 | Amaika |
| +3 | eta iru |
| +6 | eta sei, |
| 20 | ogei dira. |



# KENDUKETA



**Zenbat txori dira?**

| | |
|---|---|
| 14 | Amalau |
| —2 | bi gitxiago |
| 12 | amabi dira. |

**Zenbat dira?**

| | | |
|---|---|---|
| 5 | 16 | 17 |
| +2 | —6 | —4 |
| | | |

**Zenbat ardi dira?**

| | |
|---|---|
| 20 | Ogei |
| —4 | lau gitxiago |
| 16 | amasei dira. |






## IKASTOLA

Ni etxean nago.
Zu eleizan zagoz.
Bera ikastolan dago.
Gu mendian gagoz.
Zuek ikastolan zagoze.
Eurak etxean dagoz.

— Ikastolan zenbat zagoze?
— **Ikastolan andereño bat eta iru ume gagoz.**
— Eta zuen ikastolan zenbat zagoze?
— **Gure ikastolan ume asko gagoz.**

— Zugatzean zenbat txori dagoz?
— **Zugatzean sei txori dagoz, baiña txoritxo bat kaiolan dago. Txori txiki gizajoa!!**

## TXORIAK ZUGATZEAN DAGOZ



**TXORIA KAIOLAN DAGO**



# ¿ZELAN ZAGOZ?

**- ONDO - TXARTO -**
**- OSASUNA - GAIXOA. -**





**Koldo oean dago.**
**Koldo gaixorik dago.**
**Koldo txarto dago.**
**Gaixoa gauza txarra da.**

## ALKARRIZKETA

— Kaixo, Aitor, zelan zagoz?
— **Ni ondo, eta zu?**
— Ni beti ondo nago.
— **Eta zuen aita eta ama zelan dagoz?**
— Gure aita eta ama be, Jaungoikoari eskerrak, ondo dagoz.
— **Eta zuek zelan zagoze?**
— Gu ondo gagoz, baiña Koldo ez dago ondo. Koldo oean txarto dago.
— **Koldo gaixorik dago?**
— Bai, gaixorik txarto dago.

— Kaixo, Koldo, zelan zagoz? Osatu zara?
— **Bai, osatu naz eta ondo nago.**
— Osasuna gauza ona da, Koldo.
— **Eta gaixoa gauza txarra.**



**Koldo osatu da.**
**Koldo orain ondo dago.**
**Osasuna gauza ona da.**

# NON?










**Lorak**
**mai gaiñean dagoz.**
**Katua**
**mai azpian dago.**
**Saguak**
**emen, or eta an dagoz.**

— Ama, nire amatxo!
— **Zer da, alabatxo?**
— Emen saguak dagoz.
— **Saguak non dagoz?**
— Amatxo, saguak gure sukaldean dagoz.
— **Ene, alaba, saguak gure sukaldean non dagoz?**
— Saguak gure sukaldean emen, or eta an dagoz.
— **Ene Jaungoiko andia! Saguak gure sukaldean emen, or eta an dagoz, eta gure katua non dago, ba?**
— Gure katua emen dago. Mai azpian lo eta lo dago.



— Gure katua, Pitxitxi, zu non egon zara?
— **Ni mai azpian egon naz.**
— Bai, mai azpian zu lo egon zara.
— **Ez, andrea, ni ez naz lo egon.**
— Bai, zu beti lo egoten zara, eta gure sukaldean saguak egon dira.
— **Bai, etxekandrea, lo egon naz, baiña gero ez naz lo egongo.**
— Bai, zu lo egongo zara.

## ABESTIA

**Gure katua, Pitxitxi,**
**lo eta lo dago beti.**
Saguak dagoz etxean,
gure etxeko sukaldean,
iru sagu txiki dantzan,
ta gure katua lotan.

**Gure astoa, Potoño,**
**arre, arre, Bilbo'raiño.**
1, 2, 3, 4, 5, 6, 7,
asto gaiñean nago ni.
10, 11, 12,
Agur, agur. Ondo ibilli!!!




# EGON

| EGON | EGOTEN | EGONGO |
|---|---|---|
| Ni egon naz . . | Egoten naz . . . . | Egongo naz. |
| Zu egon zara . . | Egoten zara . . . | Egongo zara. |
| Bera egon da . . . | Egoten da . . . | Egongo da. |
| Gu egon gara. . | Egoten gara . . | Egongo gara. |
| Zuek egon zarie . | Egoten zarie . . . | Egongo zarie. |
| Eurak egon dira. | Egoten dira . . . . | Egongo dira. |

| | |
|---|---|
| **Ni** | **bizi naz.** |
| **Zu** | **bizi zara.** |
| **Bera** | **bizi da.** |
| **Gu** | **bizi gara.** |
| **Zuek** | **bizi zarie.** |
| **Eurak** | **bizi dira.** |

# BIZI







— Txoriak zenbat dira?
— **Txoriak zazpi dira.**
— Eta zenbat bizi dira?
— **Bost bizi dira.**
— Zenbat txori il dira?
— **Txori bi il dira.**

— Kaixo, lagun, bizi zara?
— **Bai, Jaungoikoari eskerrak, bizi gara. Zu be bizi zara?**
— Kili-kolo, baiña bizi gara.
— **Zuen aita eta ama bizi dira?**
— Bai, gure aita eta ama bizi dira.
— **Eta zuen aitaita be bizi da?**
— Ez, gure aitaita ez da bizi. Gure aitaita il da.
— **Ondo bizi!!!**







— Ene! Ori zer da?
— **Ori sua da. Su andia. Gure etxea erre da.**
— Ene Jaungoiko maitea! Gure etxean umetxoa oean lo egon da, eta orain an sua dago.

**Gure umea erre da. Gure umea il da.**



— **Ez, ama, ez, zure umetxoa ez da il, zure umea bizi da. Nire neba txikia, Andonitxo, emen dago, bizirik dago.**

— Jaungoikoari eskerrak!!! Lurdes, zu zara nire alaba ona. Zugaitik gure umea ez da il, zugaitik bizi da...

**Orain aita, ama eta Lurdes etxe barrian bizi dira. Andoni orain andia da, eta Lurdes'i eskerrak, bizi da.**

MIKEL, MIKEL,
MIKEL GURIA,
ZAINDU, ZAINDU
EUSKALERRIA.




## IBILLI

| | |
|---|---|
| NI | NABIL |
| ZU | ZABIZ |
| BERA | DABIL |
| GU | GABIZ |
| ZUEK | ZABIZE |
| EURAK | DABIZ |



Mendi au Aralar da. Mendi andi eta polita da.
Aralar mendian Mikel aingeruaren eleiza ederra dago.
Aralar mendiko bidea, bide estua eta luzea da.
Aralar'ko bidean gizon bat dabil. Mendigoizalea da.
Mendigoizaleak beti mendian ibilten dira.

**Erri au Huarte-Arakil da. Erri txiki ta polita da.**
**Erriko bidea zabala da, eta beribilla dabil.**
**Mendiko bide estuan beribillak ez dabiz.**
**Beribillak beti bide zabaletik ibilten dira.**

— Mutillak, zuek mendian ibilten zarie?—**Ez.**
— Zuek nondik ibilten zarie?—**Beti bide zabaletik.**
— Eta non ibilten zarie?—**Beti beribillean gabiz gu.**
— Mutillak, zuek beribillak zarie? Beribillak be mendian ez dira ibilten. Beti bide zabaletik dabiz. Ni mendigoizalea naz, eta beti mendian ibilli naz, eta beti mendian ibilliko naz.

— Zu, mendigoizale lagun, Aralar mendian otsoak dabiz?
— **Aralar mendian len otsoak ibilli dira, baiña orain otsorik an ez dago. Otsorik ez dabil.**
— Eta gero ez dira ibilliko?
— **Ez, gero be ez dira ibilliko.**
— Gu be mendigoizaleak izango gara, eta Aralar mendian eta Euskalerriko mendietan ibilliko gara.
— **Lagunak, ondo ibilli!!!**

| IBILLI | | IBILTEN | IBILLIKO |
|---|---|---|---|
| Ni | ibilli naz. | Ibilten naz. | Ibilliko naz. |
| Zu | ibilli zara. | Ibilten zara. | Ibilliko zara. |
| Bera | ibilli da. | Ibilten da. | Ibilliko da. |
| Gu | ibilli gara. | Ibilten gara. | Ibilliko gara. |
| Zuek | ibilli zarie. | Ibilten zarie. | Ibilliko zarie. |
| Eurak | ibilli dira. | Ibilten dira. | Ibilliko dira. |




# JOAN

| JOAN | JOATEN | JOANGO |
|---|---|---|
| Ni joan naz.<br>Zu joan zara.<br>Bera joan da.<br>Gu joan gara.<br>Zuek joan zarie.<br>Eurak joan dira. | Joaten naz.<br>Joaten zara.<br>Joaten da.<br>Joaten gara.<br>Joaten zarie.<br>Joaten dira. | Joango naz.<br>Joango zara.<br>Joango da.<br>Joango gara.<br>Joango zarie.<br>Joango dira. |

— Egunon, jauna. Bide au nora doa?
— **Bide au Donostia'ra doa. Eta zu, lagun, nora zoaz?**
— Ni be Donostia'ra noa.
— **Gure beribillean joango zara. Ondo joango zara.**
— Eskerrik asko, baiña ni beribillean ez naz ibilten.
— **Ba, gu Donostia'ra beti beribillean joaten gara. Donostia erri polita da.**
— Ni len Igeldo mendira joan naz, eta orain itxasora noa. Itxasoa be polita da.
— **Eta zure lagunak nora joan dira?**
— Nire lagunak Jaizkibel mendira joan dira, baiña gero nire lagunak be itxasora joango dira.






# ETORRI

| ETORRI | ETORTEN | ETORRIKO |
|---|---|---|
| Ni etorri naz.<br>Zu etorri zara.<br>Bera etorri da.<br>Gu etorri gara.<br>Zuek etorri zarie.<br>Eurak etorri dira. | Etorten naz.<br>Etorten zara.<br>Etorten da.<br>Etorten gara.<br>Etorten zarie<br>Etorten dira. | Etorriko naz.<br>Etorriko zara.<br>Etorriko da.<br>Etorriko gara.<br>Etorriko zarie.<br>Etorriko dira. |

— Arratsaldeon, andrea. Bultzi ori nondik dator?
— **Donostia'tik dator. Ni be bultzian etorri naz.**
— Eta zuek nondik zatoze?
— **Gu Aizkorri'ra joan gara, eta orain menditik gatoz.**
— Aizkorri'tik zatoze? Mutil ori be menditik dator.
— **Bai, baiña mutil ori Aizkorri'tik ez dator. Mutil ori mendigoizalea da, eta len Aralar mendira joan da, eta orain Aralar menditik dator.**
**Eta zu, andrea, Donostia'ra non joan zara?**
— Beribillean joan naz, eta bultzian etorri naz.
Joan eta etorri ondo ibilli naz.
— **Gu be mendian ondo egon gara. Mendia gauza ona da.**

# LUDIA










Au Ludia da.
Ludian gizon asko
bizi dira. Gu be
Ludian bizi gara.

Ludiaren gaiñean
zerua dago, eta
zeruan eguzkia dago.

Ludian urak eta lurrak
dagoz. Ludiko ur andiak
itxasoak dira.

Itxasoak andiak eta zabalak dira. Itxasoan ur asko dago.
Ludiko itxasandiak iru dira: **Atlantiku Itxasandia, Pazifiku Itxasandia** eta **Indiku Itxasandia.**

Ludiko lurrak be andiak eta zabalak dira.
Ludiko lurrandiak bost dira:
**Europa, Asia, Aprika, Ameriketa eta Ozeania.**
Ameriketak bi dira: **Goi-amerika** eta **Be-amerika.**
Asia zabala da. Aprika andia da. Ameriketak luzeak dira. Europa ta Ozeania txikiak dira.
Europa'n gizon zuriak bizi dira, eta Aprika'n baltzak.
Aprika'n leoiak eta elefanteak asko dagoz.



Orain eguzkia
zeruan ez dago.
Eguzkia joan da,
eta illargia
eta izarrak
etorri dira.

Illargia zuria da.
Izarrak txikiak
eta politak dira.

Ludian mendiak eta ibaiak andiak eta asko dagoz.
**Himalaya mendia Asia'n dago. Andes mendiak Ameriketan, eta Alpes mendiak Europa'n dagoz.**
**Auñamendi Euskalerrian dago. Mendi andia da.**
Ludiko ibaiak zabalak eta luzeak dira:
**Amazonas ibaia Be-amerikan eta Nilo Aprika'n dagoz.**

Euskalerriko ibaiak asko, baiña txikiak dira.
**Nerbion eta Ibaizabal Bizkai'ko ibaiak dira.**
**Zadorra Araba'n eta Oria ta Urumea Gipuzkoa'n dagoz.**
**Ega, Arga eta Aragoa Naparroa'ko ibaiak dira.**
**Bidasoa Lapurdi eta Gipuzkoa'ren erdian dago.**
**Aturri ibaia Baiona'n ilten da. Ibai ederra da.**




Mapa au Europa da. Europa'n legerri asko dagoz.

Britania Andiaren uriburua London da.
España'ren . . . . . uriburua Madrid da.
Frantzia'ren . . . . uriburua Paris da.
Italia'ren . . . . . . uriburua Erroma da.



Europa'ko legerriak andiak eta txikiak dira.

España . . . . . **zabala** . . da,
baiña Frantzia . . . . **zabalagoa** da,
eta Errusia . . . . **zabalena** . da.
Errusia . **.oso zabala** . . da.
Errusia . **zabal-zabala** . . da.

Holanda . . . . **txikia** . . . da,
baiña Luzenburgo . . **txikiagoa** . da,
eta Andorra . . . . **txikiena**. . da.
Andorra . **.oso txikia** . . . da.
Andorra . **txiki-txikia** . . . da.

Euskalerriko mendiak andiak dira.
Anboto-mendia . . . **andia** . . . da.
baiña Aizkorri . . . . **andiagoa** . da.
eta Auñamendi . . **andiena** . da.
Auñamendi **oso andia** . . . da.
Auñamendi **andi-andia** . . . da.

---

Ural, Kaukaso eta Alpes mendiak andiak dira.
baiña Kaukaso **andiagoa** da Ural **baiño,**
eta Ural . . **txikiagoa** da Alpes **baiño.**

Ebro, Rhin eta Volga ibaiak luzeak dira,
baiña Volga **luzeagoa** da Rhin **baiño,**
eta Rhin **luzeagoa** da Ebro **baiño.**

Izarren argia . . . **ona** da,
baiña illargiaren argia . . . **obea** da,
eta eguzkiaren argia . . . **onena** da.

Gorbei mendiko . . ura **ona** da,
baiña Gipuzkoa'ko sagardaua **obea** da,
eta Naparroa'ko . . .ardaua **onena** da.

**O N A .**
**O B E A .**
**ONENA.**

# ITSU-MUTSUKA JOLASEAN




Edurne, Itziar, Arantza, Maite eta Garbiñe lagunak dira. Beti ikastolara joaten dira, eta gero ikastolatik etorten dira, eta itsu-mutsuka jolasean ibilten dira.

Edurne itsu erdian dago.

Itsu-mutsu, Edurne, Arantza non dago?.—Arantza...... dago.
Itsu-mutsu, Edurne, Garbiñe non dago?.—Garbiñe...... dago.
Itsu-mutsu, Edurne, Itziar non dago?.—Itziar........ dago.
Itsu-mutsu, Edurne, Maite non dago?.—Maite......... dago.



**NOR? . . . Ni . . . . . zu . . . . . bera . . .**
**NORTZUK? . . . . . . . . . . gu . . . . zuek . . . eurak . .**

**NORENA? Nirea . zurea . berea . gurea . zuena . eurena .**
**NORENAK? Nireak zureak bereak gureak zuenak eurenak**

**NOR? . . . Au . . . . ori . . . . a . . . .**
**NORTZUK? . . . . . . . . . . . . . . . oneik . orreik . areik .**

**NI. . . . . . . . . . NAZ.**
**ZU . . . . . . . . . ZARA.**
**BERA . . . . . . . . DA.**
**GU . . . . . . . . . GARA.**
**ZUEK. . . . . . . . ZARIE.**
**EURAK . . . . . . . DIRA.**

Izan naz . . . . . . . . izaten naz . . . . . . izango naz . . . .

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ni | **nago.** | Gu | **gagoz.** |
| Zu | **zagoz.** | Zuek | **zagoze.** |
| Bera | **dago.** | Eurak | **dagoz.** |

Egon naz . . . . . . . egoten naz . . . . . egongo naz . . . . .

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ni | **nabil.** | Gu | **gabiz.** |
| Zu | **zabiz.** | Zuek | **zabize.** |
| Bera | **dabil.** | Eurak | **dabiz.** |

Ibilli naz . . . . . . . . ibilten naz . . . . . ibilliko naz . . . . .

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ni | **noa.** | Gu | **goaz.** |
| Zu | **zoaz.** | Zuek | **zoaze.** |
| Bera | **doa.** | Eurak | **doaz.** |

Joan naz . . . . . . . joaten naz . . . . . . joango naz . . . . .

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ni | **nator.** | Gu | **gatoz.** |
| Zu | **zatoz.** | Zuek | **zatoze.** |
| Bera | **dator.** | Eurak | **datoz.** |

Etorri naz . . . . . . . etorten naz . . . . . etorriko naz . . .

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **NON?** | **Emen.** | **. . or.** | **. . an** | **. . Goian** | **. bean** | **. aurrean** |
| **NORA?** | **Ona.** | **. . . orra** | **. ara** | **. . Gora.** | **. bera** | **. aurrera** |
| **NONDIK?** | **Emendik** | **. ortik** | **. andik** | **. Goitik** | **. betik** | **. aurretik** |






Bultzia ba-doa,
pi! pi! pi!
Bultzia joan da,
pi! pi! pi! pi! pi!

Gu ba-goaz, nora goaz?
Urrutira goaz gu.
fu, fu, fu, fu.
Erroma'ra, Paris'era,
London'era goaz gu.
fu, fu, fu, fu.

Arin-arin goaz gu,
etorriko gara gu.
Erroma'ra goaz gu,
bultzian txu, txu, txu, txu.
txu, txu, txu, txu, txu.
txu, txu, txu, txu, txu.

Ondo ibilli! Ondo ibilli!
Agur! Agur! Agur!

**AGUR, AGUR, AGUR!**



## BULTZIA



| | | | |
|---|---|---|---|
| NIK | DOT. | NIK | DODAZ. |
| ZUK | DOZU. | ZUK | DOZUZ. |
| BERAK | DAU. | BERAK | DAUZ. |
| GUK | DOGU. | GUK | DOGUZ. |
| ZUEK | DOZUE. | ZUEK | DOZUEZ. |
| EUREK | DABE. | EUREK | DABEZ. |




| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nik | ama | maite | dot. | Nik | anaiak | maite | dodaz. |
| Zuk | ama | maite | dozu. | Zuk | anaiak | maite | dozuz. |
| Berak | ama | maite | dau. | Berak | anaiak | maite | dauz. |
| Guk | ama | maite | dogu. | Guk | anaiak | maite | doguz. |
| Zuek | ama | maite | dozue. | Zuek | anaiak | maite | dozuez. |
| Eurek | ama | maite | dabe. | Eurek | anaiak | maite | dabez. |

## ABESTIA

Itxasoan laiño dago,
Baiona'ko barraraiño.
Nik zu zaitut maiteago,
Txoriak bere umeak baiño.

Itxasoan laiño dago,
Baiona'ko barraraiño.
Nik zu zaitut maiteago,
Arraitxuak ura baiño.



## ALKARRIZKETA

Iñaki, zuk aita maite dozu?
— **Bai, nik aita maite dot.**
— Eta zuk zure lagunak maite dozuz?
— **Bai, nik nire lagunak maite dodaz.**
— Eta arraiñak ura maite dau?
— **Bai, arraiñak ura maite dau.**
Miren, zuk ama zenbat maite dozu?
— **Nik ama asko maite dot.**
— Eta zuk zure lagunak zenbat maite dozuz?
— **Nik nire lagunak asko maite dodaz.**
— Eta txoriak bere umeak zenbat maite dauz?
— **Txoriak bere umeak asko maite dauz.**
Umeak, zuek aita maite dozue?
— **Bai, guk aita maite dogu.**
— Eta zuek lagunak maite dozuez?
— **Bai, guk lagunak maite doguz.**
— Zuek aita eta ama zenbat maite dozuez?
— **Guk aita eta ama biotz-biotzez maite doguz.**





NIK DAUKAT.
ZUK DAUKAZU.
BERAK DAUKA.

GUK DAUKAGU.
ZUEK DAUKAZUE.
EUREK DAUKE.

Mutil gazte au
pelotaria da.

Pelotariak pelota bat dauka.

## ALKARRIZKETA

— Pelotariak zenbat pelota daukaz?
— **Pelotariak pelota bat dauka.**
— Eta zuek zenbat pelota daukazuez?
— **Guk be pelota bat daukagu.**
— Eta zuk, Patxi, zenbat pelota daukazuz?
— **Nik be pelota bat daukat.**
— Pelota bat bakarra daukazu?
— **Bai, pelota bat bakarra daukat.**
— Orduan guk zenbat pelota daukaguz?
— **Zuek bat, Patxi'k bat, eta pelotariak be bat, zuek iru pelota daukazuez.**
**Baiña zuek etxean pelotarik ez daukazue?**
— Bai, guk etxean lau pelota daukaguz.
— **Orduan zuek zazpi pelota daukazuez.**
— Bai, iru ta lau zazpi dira. Guk zazpi pelota daukaguz.



# EUKI





URTEAK

Zenbat urte daukazuz?
Nik iru urte daukadaz.

NIK DAUKADAZ.
ZUK DAUKAZUZ.
BERAK DAUKAZ.

GUK DAUKAGUZ.
ZUEK DAUKAZUEZ.
EUREK DAUKEZ.

## ALKARRIZKETA

— Yontxu, zuk zenbat urte daukazuz?
— **Nik iru urte daukadaz.**
— Yontxu, zu umetxo bat zara. Zu txiki-txikia zara.
Ni mutil andia naz. Nik zortzi urte daukadaz.
— **Zuk zortzi urte daukazuz, eta nik iru daukadaz.**
**Zuk eta nik zenbat urte daukaguz?**
— Iru eta zortzi amaika dira.
Zuk eta nik amaika urte daukaguz.
— **Eta pelotariak zenbat urte daukaz?**
— Pelotaria gaztea da. Pelotariak ogei urte daukaz.
— **Eta zure aitaitak zenbat urte daukaz?**
— Nire aitaita zarra da eta urte asko daukaz.
— **Zu, eta illargia eta izarrak zenbat urte daukez?**
— Ene!, Yontxu, illargia eta izarrak zar-zarrak dira.
Illargiak eta izarrak urte asko daukez.

# EUKI

EUKITEN.
EUKIKO.




Oillo loka txitakaz ikastolan dago. Oilloak len ikastolan zazpi txita euki dauz, baiña orain sei daukaz

## ALKARRIZKETA

— Oilloa, zenbat txita euki dozuz?
— **Zazpi txita euki dodaz,**
**baiña orain sei daukadaz.**
**Ai!, txitatxo bat il da.**
— Gero zuk zenbat eukiko dozuz?
— **Gero nik ogei eukiko dodaz.**
— Zuk txita asko eukiten dozuz?
— **Bai, nik txita asko eukiten dodaz.**
— Txitatxuak, ikastaldia euki dozue?
— **Bai, ikastaldia euki dogu.**
— Eta gero be eukiko dozue?
— **Bai, gero be eukiko dogu.**
**Guk ikastaldia beti eukiten dogu.**

| | |
|---|---|
| **Euki** | **dot.** |
| **Euki** | **dozu.** |
| **Euki** | **dau.** |
| **Euki** | **dogu.** |
| **Euki** | **dozue.** |
| **Euki** | **dabe.** |
| **Eukiten** | **dot.** |
| **Eukiten** | **dozu.** |
| **Eukiten** | **dau.** |
| **Eukiten** | **dogu.** |
| **Eukiten** | **dozue.** |
| **Eukiten** | **dabe.** |
| **Eukiko** | **dot.** |
| **Eukiko** | **dozu.** |
| **Eukiko** | **dau.** |
| **Eukiko** | **dogu.** |
| **Eukiko** | **dozue.** |
| **Eukiko** | **dabe.** |






| | |
|---|---|
| **Euki** | **dodaz.** |
| **Euki** | **dozuz.** |
| **Euki** | **dauz.** |
| **Euki** | **doguz.** |
| **Euki** | **dozuez.** |
| **Euki** | **dabez.** |
| **Eukiten** | **dodaz.** |
| **Eukiten** | **dozuz.** |
| **Eukiten** | **dauz.** |
| **Eukiten** | **doguz.** |
| **Eukiten** | **dozuez.** |
| **Eukiten** | **dabez.** |
| **Eukiko** | **dodaz.** |
| **Eukiko** | **dozuz.** |
| **Eukiko** | **dauz.** |
| **Eukiko** | **doguz.** |
| **Eukiko** | **dozuez.** |
| **Eukiko** | **dabez.** |

— Zuk zenbat sagar euki dozuz?
— **Nik amabi sagar euki dodaz.**
— Andoni'k zenbat sagar euki dauz?
— **Andoni'k zortzi sagar euki dauz.**
— Orduan, zuk eta Andoni'k
zenbat sagar euki dozuez?
— **Andoni'k eta nik**
**ogei sagar euki doguz.**

— Ume, zu lo zagoz. Zer daukazu?
— **Nik lo gurea daukat.**

— Zuek etxeko kaiolan txoriak
eukiten dozuez?
— **Bai, guk etxeko kaiolan**
**txoriak eukiten doguz, baiña**
**orain txoririk ez daukagu.**
— Gero eukiko dozuez?
— **Bai, gero eukiko doguz.**

# EGIN

Txoriak abestu egiten dau.
Gure amak josi egiten dau.
Bonbillak argi egiten dau.





| | | |
|---|---|---|
| Nik | egin | dot. |
| Zuk | egin | dozu. |
| Berak | egin | dau. |
| Guk | egin | dogu. |
| Zuek | egin | dozue. |
| Eurek | egin | dabe. |
| Nik | egiten | dot. |
| Zuk | egiten | dozu. |
| Berak | egiten | dau. |
| Guk | egiten | dogu. |
| Zuek | egiten | dozue. |
| Eurek | egiten | dabe. |
| Nik | egingo | dot. |
| Zuk | egingo | dozu. |
| Berak | egingo | dau. |
| Guk | egingo | dogu. |
| Zuek | egingo | dozue. |
| Eurek | egingo | dabe. |

## EGIN - EGITEN - EGINGO

— Txori txiki abeslaria, zuk zer egiten dozu?
— **Nik abestu egiten dot.**
— Txori txiki polita, zuk non lo egingo dozu?
— **Mendiko zugatzean kabia daukat, eta an lo egingo dot.**

— Ama, zuk zer egiten dozu?
— **Nik josi egiten dot.**
**Eta zuek ikastolan zer egiten dozue?**
— Guk ikastolan abestu egiten dogu.
— **Eta gero zer egingo dozue?**
— Gero mendian abestu egingo dogu.






**AIZTOAK**
**OGIA**
**EBAGI**

— Zer da ori, Mirentxu?
Zuk eskuan zer daukazu?
— **Au aiztoa da, amatxo,**
**nik eskuan aiztoa daukat.**
— Aiztoaz ez ibilli!!!
Aiztoak ebagi egiten dau,
eta zuk atzamarrak
ebagi egingo dozuz.
— **Ez, amatxo, nik atzamarrak**
**ez dodaz ebagiko.**
— Bai, zuk ebagi egingo dozuz.
Orain zuk barre egiten dozu,
baiña gero negar egingo dozu.

| | | |
|---|---|---|
| Nik | egin | dodaz. |
| Zuk | egin | dozuz. |
| Berak | egin | dauz. |
| Guk | egin | doguz. |
| Zuek | egin | dozuez. |
| Eurek | egin | dabez. |
| Nik | egiten | dodaz. |
| Zuk | egiten | dozuz. |
| Berak | egiten | dauz. |
| Guk | egiten | doguz. |
| Zuek | egiten | dozuez. |
| Eurek | egiten | dabez. |
| Nik | egingo | dodaz. |
| Zuk | egingo | dozuz. |
| Berak | egingo | dauz. |
| Guk | egingo | doguz. |
| Zuek | egingo | dozuez. |
| Eurek | egingo | dabez. |



— **Ai ene!!!**
**amatxo!!!**
— Mirentxu,
zer
egin dozu?
— **Atzamarrak**
**ebagi dodaz.**
— Orain zuk
negar
egiten dozu

— **Iñaki pozik dago, alai dago.**
**Iñaki'k ez dau negarrik egiten.**
**Iñaki'k barre egiten dau.**
— **Iñaki, zu pozik zagoz?**
— **Bai, nik barre egiten dot.**
— **Ondo egiten dozu.**
**Mirentxu'k orain**
**negar egiten dau.**



**Barre egiten dau.**



## ABESTIA

**Gorbeia'ko mendian,**
**puntaren puntan,**
**gurutze eder bat dago.**
**Andik Euskalerria**
**ikusten dogu ederrago.**

**Zatoz, Miren, jarri emen:**
**Zer dozu ikusten?**
**Euskalerri, abi txiki,**
**mendi ta baserri.**

Aupa! mendigoizale gazte,
Gorbei mendira igon zaitez,
an egingo dogu irrintzi:
Aurrera mutillak!!!



— Zuk zer ikusten dozu, lagun?
— **Gorbeia mendiko gurutzea ikusten dot.**
— Eta zuk zer ikusten dozu?
— **Nik mendiak eta erriak ikusten dodaz.**
— Mutillak, zuek mendigoizaleak zarie?
— **Bai, gu mendigoizaleak gara.**
— Eta zuek menditik zer ikusten dozue?
— **Guk menditik erri txikiak eta baserri zuriak ikusten doguz.**
**Aurrera mutillak!!! Beti aurrera!!!**



| IKUSI | | | IKUSTEN | | IKUSIKO | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nik | Ikusi | dot. | Ikusten | dot. | Ikusiko | dot. |
| Zuk | Ikusi | dozu. | Ikusten | dozu. | Ikusiko | dozu. |
| Nik | Ikusi | dodaz. | Ikusten | dodaz. | Ikusiko | dodaz. |
| Zuk | Ikusi | dozuz. | Ikusten | dozuz. | Ikusiko | dozuz. |

— Lagun, zuk Iruña ikusi dozu?
— **Ez, nik Iruña ez dot ikusi, baiña ikusiko dot. Eta zuk Baiona ikusi dozu?**
— Bai, nik Baiona ikusi dot. Baiona erri polita da. Eta zuek Bilbo ikusi dozue?
— **Gu bilbotarrak gara eta Bilbo ondo ikusi dogu. Eta zuek nongoak zarie? Naparrak zarie?**
— Bai, gu Naparroa'n bizi gara eta Gorbeia mendira etorri gara. Emendik Euskalerria ikusiko dogu.
— **Bai, Gorbeia'ko gurutzetik Bizkai'ko erri andiak eta Araba'ko erri txiki, politak ikusiko dozuez. Agur, lagunak. Ikusi arte!!!**









# IKUSTEN DOZU...




Ikusten dozu goizean
argia asten danean,
menditxo baten gaiñean
etxe txikitxo
zuri polit bat

lau aitz andiren artean,
iturritxo bat aldean,
txakur zuri bat atean?
An bizi naz ni bakean.




Anton zirkura joan da.
Anton'ek zirkua ikusi nai dau.

— Anton, Anton!!!
— **Zer nai dozu?**
— Zirkua ikusi nai dot.
Leoiak, artzak eta
elefanteak
ikusi nai dodaz.

Peru zaldi gaiñean dabil.
Peru'k jolas egin nai dau.

— Peru, Peru!!!
— **Zer nai dozue?**
— Jolas egin nai dogu.
— **Non ibilli nai dozue?**
— Zaldi gaiñean ibilli
nai dogu.

| NAI DOT | | |
|---|---|---|
| **Nik** | **nai** | **dot.** |
| **Zuk** | **nai** | **dozu.** |
| **Berak** | **nai** | **dau.** |
| **Guk** | **nai** | **dogu.** |
| **Zuek** | **nai** | **dozue.** |
| **Eurek** | **nai** | **dabe.** |

| GURA DOT | | |
|---|---|---|
| **Nik** | **gura** | **dot.** |
| **Zuk** | **gura** | **dozu** |
| **Berak** | **gura** | **dau.** |
| **Guk** | **gura** | **dogu.** |
| **Zuek** | **gura** | **dozue** |
| **Eurek** | **gura** | **dabe.** |






| BEAR | | |
|---|---|---|
| **Nik** | **bear** | **dot.** |
| **Zuk** | **bear** | **dozu.** |
| **Berak** | **bear** | **dau.** |
| **Guk** | **bear** | **dogu.** |
| **Zuek** | **bear** | **dozue.** |
| **Eurek** | **bear** | **dabe.** |
| **Nik** | **bear** | **dodaz.** |
| **Zuk** | **bear** | **dozuz** |
| **Berak** | **bear** | **dauz.** |
| **Guk** | **bear** | **doguz.** |
| **Zuek** | **bear** | **dozuez.** |
| **Eurek** | **bear** | **dabez.** |

Miren'en aitak mendira
joan bear dau.
Aitak gaztaia bear dau.
Ogia eta ardaua be aitak
mendian bear dauz.

— Miren, Mirentxu!!!
— **Zer bear dozu, aita?**
— Ni mendira noa eta
gaztaia bear dot.
— **Gaztai osoa bear dozu?**
— Ez, zati bat bear dot.
— **Aita, gaztai erdia**
**emen daukazu, baiña**
**ogia eta ardaua be**
**mendian bear dozuz.**
— Emen dago botilla bat.
— **Bai, baiña ori utsik dago.**

# JAN, JATEN, JANGO - JANARIAK - GOSE

— Gose naz. Jan egin bear dogu.
— **Zer jan nai dozue?**
— Nik len aragia jan dot. Orain arraiña jango dot.
— Ba, nik len arrautzak jan dodaz, eta orain gaztaia jango dot. Nik beti gaztaia jaten dot.
— **Aragia eta arraiña janari onak dira.**
— Gaztaia eta arrautzak be ez dira janari txarrak.
— **Zuek ogi asko jaten dozue?**
— Bai, nik ogi asko jaten dot. Ogi zuria janari ona da.
— Nik mendian gaztaia eta ogia jaten dodaz.
— Nik ogi gitxi jaten dot, baiña arrautzak eta aragia asko jaten dodaz.
— Orain, lagunak, jan egin bear dogu.
— **On egin!!!**
— Eskerrik asko!!!









# EDAN, EDATEN, EDANGO - EDARIAK - EGARRI

— Egarri naz. Edan egin bear dogu. Ze edari daukazu?
— **Zer edan nai dozue? Ardaua, sagardaua ala txakoliña?**
— Nik len ura edan dot, eta orain ardaua edango dot.
— **Zein da edari obea, ardaua ala sagardaua?**
— Ardaua edari ona da, baiña sagardaua be ez da txarra.

— **Zuek etxean zer edaten dozue?**
— Guk etxean akaita eta esnea edaten doguz, baiña emen ardaua, txakoliña eta sagardaua edango doguz.
— **Edariekaz kontuz, mutillak, Moskorra arrapauko dozue!!!**






Asteak zazpi egun daukaz:
Sei astegunak dira eta bat jaieguna.
**Jaieguna igandea da.**
**Astegunak: astelena, asteartea, eguaztena, eguena, barikua eta larunbata.**

Astegunean guk lan egiten dogu.
Igandean guk jolas egiten dogu.

Igandean ni Mezatara joaten naz, eta gero lagunekaz jolas egiten dot.

— Zu, lagun, gaur igandea da eta jolas egin bear dogu.
— **Non jolas egingo dogu, ba?**
— Eleiza-aurrean jolas egingo dogu.
— **Eta nogaz jolas egingo dogu?**
— Gure lagunakaz jolas egingo dogu.



— Lagunak, zer nai dozue?
— **Asteguna da, eta lan egin nai dogu.**
— Ondo dago. Bai, astegunetan guztiok lan egin bear dogu. Eta zuek non lan egin nai dozue, ba?
— **Nik mendian lan egin nai dot.**
— Mendian artzaiñak lan egiten dabe.
— **Nik itxasoan lan egin nai dot.**
— Itxasoan arrantzaleak lan egiten dabe.
— **Nik erriko lantegian lan egin nai dot.**
— Lantegian langilleak lan egiten dabe.
— **Nik eta zuk, onek eta arek, eta guztiok astegunetan lan egin eta igandetan jolas egin bear dogu.**

— Jan egin nai dozu? **Lan egin bear dozu.**
— Gizon ona izan nai dozu? **Astegunetan lan egin bear dozu, eta igandetan jolas egin bear dozu.**

| | | |
|---|---|---|
| ASTELENA | ASTEARTEA | EGUAZTENA |
| EGUENA | BARIKUA | LARUNBATA |






Ume onek guzurrak esaten dauz.
Bai, guzur andiak esaten dauz.
Pastela berak jan dau, eta gero guzurra esan dau:
**Pastela nik ez dot jan.**
Guzurra gauza motza da. Beti egia esan bear da.
**Ez guzurrik esan!**
**Beti egia esan!**

## ESAN, ESATEN, ESANGO

— Pastela nok jan dau?
Zuk jan dozu?
— **Ez, nik ez dot jan.**
— Bai, zuk jan dozu.
Nik ondo ikusi dot.
Guzurra esan dozu.
Zuk beti guzurrak esaten dozuz.
Zu guzurtia zara.
— **Ez, nik guzurrik ez dot esan.**
— Bai, esan dozu.
— **Ez, ez dot esan.**
— Zuk beti guzurrak esaten dozuz, eta orain be zuk guzurra esan dozu.
— **Bai, parkatu, ez dot guzurrik esango. Egia esango dot.**

| | |
|---|---|
| **Esan dot.**<br>**Esan dozu.**<br>**Esan dau.**<br>**Esan dogu.**<br>**Esan dozue.**<br>**Esan dabe.** | **Ez dot esan.**<br>**Ez dozu esan.**<br>**Ez dau esan.**<br>**Ez dogu esan.**<br>**Ez dozue esan.**<br>**Ez dabe esan.** |
| **Esaten dot.**<br>**Esaten dozu.**<br>**Esaten dau.**<br>**Esaten dogu.**<br>**Esaten dozue.**<br>**Esaten dabe.** | **Ez dot esaten.**<br>**Ez dozu esaten.**<br>**Ez dau esaten.**<br>**Ez dogu esaten.**<br>**Ez dozue esaten.**<br>**Ez dabe esaten.** |
| **Esango dot.**<br>**Esango dozu.**<br>**Esango dau.**<br>**Esango dogu.**<br>**Esango dozue.**<br>**Esango dabe.** | **Ez dot esango.**<br>**Ez dozu esango.**<br>**Ez dau esango.**<br>**Ez dogu esango.**<br>**Ez dozue esango.**<br>**Ez dabe esango.** |





## ITZ EGIN
## BERBA EGIN

Begoña'k Estibalitz'egaz itz egin nai dau, baiña Begoña Bilbo'n bizi da eta Estibalitz Gazteiz'en dago.
Bego, zuk zelan itz egingo dozu?
Urrutizkiñaz itz egingo dot.

8 5 0 7 3 6

### ZORTZI, BOST, UTS, ZAZPI, IRU, SEI?

Larrinaga'tar Estibalitz'en etxea da?... Bai?...
Eskerrik asko... Zu nor zara, ba?... Alabea?...
Zuen ama etxean dago?... Bai?... Or dago?...
Nik zuen amagaz itz egin nai dot...

Egunon, Estibalitz, zelan zagoz?...
Jaungoikoari eskerrak ni be oso ondo nago, eta gure etxekoak be bai... Zuen etxekoak zelan dagoz?...
Asko poztuten naz...
Zu, Estibalitz, nik zugaz itz egin nai dot...
Bilbo'ra noz etorriko zara?... Zer?...
Lan asko daukazu?... Nik be bai...
Gure etxean bazkalduko dozu...
Bai, agur eta gorantziak...
Ikusi arte!!!



# GURE GORPUTZA






Gure gorputza gauza ederra da.
Gure gorputzak burua, eskuak eta oiñak daukaz.
Buruan begiak, belarriak, suurra eta agoa dagoz.

Begiekaz ikusi egiten da.
Belarriekaz entzun egiten da.
Suurraz usain egiten da.
Agoaz jan, edan eta itz egiten da.
Eskuekaz lan egiten da.
Oiñakaz ibilli egiten da.

Begiekaz eguzkia, itxasoa eta mendiak ikusten doguz.
Belarriekaz txorien abestiak entzuten doguz.
Suurraz loratxoen usain ona usain egiten dogu.
Agoaz janariak eta edariak jaten eta edaten doguz.
Baita agoaz gure lagunekaz itz egiten dogu.
Oiñakaz mendian eta errian ibilten gara.

## JARDUKIZUNA

| | |
|---|---|
| Begiekaz zer egiten da? | **Begiekaz** ......... **egiten da.** |
| Oiñakaz zer egiten da? | **Oiñakaz** ......... **egiten da.** |
| Suurraz zer egiten da? | **Suurraz** ......... **egiten da.** |
| Lan zegaz egiten da? | **Lan** .............. **egiten da.** |
| Jan zegaz egiten da? | **Jan** .............. **egiten da.** |
| Entzun zegaz egiten da? | **Entzun** ........... **egiten da.** |

| | |
|---|---|
| Nik eguzkia ikusi........... | Nik izarrak ikusi.............. |
| Zuk ardaua edan.............. | Zuk ogia ta gaztaia jan...... |

Yontxu'k txoritxoen abestiak entzuten.........................
Guk loratxoen usain ona usain egiten.........................
Zuek asko itz egiten..............
Ume onak aitagaz eta amagaz ibilten.................



AKERRAK ARTOA JAN.

# AKERRA IKUSI DOGU




MAKILLAK
AKERRA
JO.

SUAK
MAKILLA
ERRE.



URAK SUA AMATAU







KATUAK SAGUA
ARRAPATU.

Akerra ikusi dogu baratzean jaten.
Makilla ikusi dogu aker ori joten.
Makillak akerra, akerrak artoa,
akerra ken. Baratzetik akerra ken,
ken, ken, ken, ken.
Sua ikusi dogu makilla erretzen,
Ura ikusi dogu sua amatatzen.
Urak sua, suak makilla,
makillak akerra, akerrak artoa,
akerra ken. Baratzetik akerra ken,
ken, ken, ken, ken,
Idia ikusi dogu ur ori edaten.
Sokea ikusi dogu idia lotuten.
Sokeak idia, idiak ura,
urak sua, suak makilla,
makillak akerra, akerrak artoa,
akerra ken. Baratzetik akerra ken,
ken, ken, ken, ken.
Sagua ikusi dogu sokea etetzen,
Katua ikusi dogu sagua arrapatzen.
Katuak sagua, saguak sokea,
sokeak idia, idiak ura,
urak sua, suak makilla,
makillak akerra, akerrak artoa,
akerra ken. Baratzetik akerra ken,
ken, ken, ken, ken.



SAGUAK SOKEA
ETEN.

SOKEAK IDIA
LOTU.

IDIAK URA EDAN.

— Umeak, nire puztukiak politak dira?
— **Bai, oso politak dira: urdiñak, orlegiak, oriak eta gorriak dira.**

— Zein puztuki nai dozue?
— **Nik urdiña nai dot.**
— **Nik oria... Nik gorria...**

Nik emon eta zuk artu.
Iru txori eta lau katu.

# MARGOAK







Koldo'k eskuan orratza dauka.
Koldo'k puztukia orratzaz zulatu nai dau.
Koldo, zergatik puztukia zulatu nai dozu?
Ori ez da egin bear. Zu, Koldo, lagun gaiztoa zara.



Gizon au on-ona da eta puztukiak emon egiten dauz, eta mutillak eta neskatillak artu egiten dabez. Egia da? Ala guzurra? Ez, egi-egia da.

— Arratsalde on, jauna. Zuk puztukiak emon egiten dozuz?
— **Bai, nik puztukiak emon egiten dodaz. Artu nai dozuez? Zenbat nai dozuez?**
— Nik bat artuko dot. Gorria artuko dot. Nik beste bat artuko dot. Nik urdiña nai dot.
— **Eta zuk, ume, zergatik ez dozu artzen?**
— Nik artu dot. Nik puztuki orlegia artu dot.
— **Mutillak eta neskatillak, puztukiak artu dozuez?**
— Bai, jauna, artu doguz. Eskerrik asko!!! Milla esker!!!

| EMON - EMOTEN - EMONGO |
| --- |
| ARTU - ARTZEN - ARTUKO |

— Nire puztukia gorria da.
Gure etxea zuri-zuria da, baiña gure etxeko tellatua gorria da. Gorria margo polita da.

— **Nire puztukia orlegia da.**
**Zugatzak eta mendiak be orlegiak dira.**
**Orlegia gorria baiño margo politagoa da.**
— Nire puztukia oria da.
Gure amatxoren buruko ulea oria da.
Oria be margo polita da.
— **Nire puztukia urdiña da.**
**Zeru garbia eta itxaso zabala urdiñak dira.**
**Urdiña margo polit-politena da.**
— Andereño, zein da margorik politena?
Urdiña, gorria, oria, zuria ala orlegia?
— **Loratxoak urdiñak, oriak, gorriak eta zuriak dira.**
**Loratxoak Jaungoikoak egin dauz. Lorak dira politenak.**




# SALDU - SALTZEN - SALDUKO -

Au denda bat da. Dendan gauzak saldu egiten dira. Jantziak, oiñetakoak eta jostailluak saltzen dira. Merke ala karu saltzen dira? Ori ikusi egin bear da.

— Egunon, andrea. Zuek emen zer saltzen dozue?
— **Guk emen gauza asko saltzen doguz:**
**Neskatillentzat jantzi polit-politak saltzen doguz.**
**Gizonentzat alkondarak eta prakak saltzen doguz.**
**Umetxoentzat jostailluak be saltzen doguz.**
**Ikusi txapel au. Zuen aitarentzat oso ederra da.**

— Bai, baiña zuek oso karu salduko dozuez!!!
— **Ez, ez, andrea, guk dana merke-merke saltzen dogu.**
**Guk gauza karuak ez doguz saltzen.**
**Gure dendan gauza guztiak oso merke saltzen dira.**
**Guk gauza onak, politak eta merkeak saltzen doguz.**






# EROSI - EROSTEN - EROSIKO.

Dendan gauzak erosi egiten dira, baiña dirua bear da. Gauza batek diru asko balio dau? Gauza karua da. Beste gauza batek diru gitxi balio dau? Merkea da.

— Egunon, andrea. Zer erosi nai dozu?
— **Aitarentzat txapel baltza erosi nai dot, baita**
**Miren'entzat gona gorri bat erosiko dot.**
**Iñaki mutil andia egin da, eta Iñaki'rentzat**
**praka luzeak, alkondara zuria eta yakea erosiko dodaz.**

— Ama, eta niretzat zer erosiko dogu?
— **Seme, zuretzat galtzerdiak eta oiñetakoak erosiko doguz.**
— Eta Yontxu'rentzat zer erosiko dozu?
— **Yontxu txikia da eta jostailluak erosiko doguz.**
— Ama, gauza asko erosi dozuz.
— **Bai, gauza asko erosi dodaz, eta diru asko balio dabe.**





**Gure katuaren izena**
**«Mitxiña» da.**
**Mitxiñak saguak il**
**eta jan egiten dauz.**
**Gure katuak diru**
**asko balio dau.**
— Zenbat diru balio dau?
Zenbatean salduko dogu?
— **Guk ez dogu salduko.**

Txakurraren izena «Toto» da. Toto, gizajoa!!!
Toto'k oso gitxi jaten dau, eta argal-argal dago.
Toto'k azur asko eta aragi gitxi dauka.
Toto'k zenbat diru balio dau? Gitxi balio dau.

**Gure idia «Mumu» da.**
**Gure aitak Mumu**
**saldu nai dau.**
**Karu salduko dau?**
**Merke salduko dau?**
**Zenbatean salduko?**
**Nork erosiko dau?**
**Mumu'k indar andia dauka.**
**Zenbat balio dau?**
**Mumu'k asko balio dau.**





Txarri au «Kurrintxo» da.
Kurrintxo'k asko jaten dau.
Gure txarria lodi-lodi dago.
Kurrintxo'k kilo asko daukaz.
Guk Kurrintxo laster il eta.
jan egingo dogu.
Kurrintxo gizajoa!!!



# SARDIÑA BIZI-BIZIAK!!!




— Aizu, Kataliñ,
nora zoaz, arin-arin?
— **Aizu, kokolo,**
**zu beti lo.**
**Zu kanpoan ardi**
**eta etxean otso.**

— Aizu, Katalíñ,
zure otzaran zenbat sardiñ?
— **Nire otzaran bat eta bi,**
**eun milla ta milloi bi,**
**ta zuretzat besegu bi.**

— Aizu, Kataliñ,
zenbatean ogei sardiñ?
— **Karu-karu, merke-merke,**
**zuk ardaua dozu maite.**

## ABESTIA

**Santurtze'tik Bilbo'raiño,**
**etorten naz arin-arin,**
**nire sardiñak saltzeko**
**buruan otzararekin.**

**Zenbatean ogei sardiñ,**
**saltzen dituzu, Kataliñ?**
**Merke-merke daukazue**
**¡Sardiña freskue!**

**Nire sardiñak bizi-biziak,**
**itxasotik gaur ekarriak.**

| | |
|---|---|
| GOSARIA . | GOSALDU. |
| BAZKARIA. | BAZKALDU. |
| ASKARIA. . | ASKALDU. |
| APARIA . . | APALDU. |

Goizean gosaldu egiten da,
eguerdian bazkaldu,
arratsaldean askaldu
eta gabean apaldu.

Guk eguerdiko amabietan bazkaltzen dogu,
eta gabeko zortziretan apaltzen dogu.

## Maia IPIÑI, IPINTEN IPIÑIKO.

— Gose naz. Amabiak dira. Bazkaldu egin bear dogu.
— **Nogaz bazkalduko dozu?**
— Nire lagunekaz bazkalduko dot.

— Mirentxu!!!
— **Zer nai dozu, ama?**
— Aita eta lagunak gose dira,
eta maia ipiñi bear dozu.
— **Bai, ama, ipiñiko dot.**

— Mai-zapia ipiñi dozu?
— **Bai, mai-zapia ipiñi dot.**
— Eta ontziak ipiñi dozuz?
— **Bai, ontziak be ipiñi dodaz.**
— Gatza be ipiñi bear da.
— **Bai, ama, ipiñiko dot.**

— **Lagunak, maia ipiñi dabe
eta bazkaldu egin bear dogu.
Gosea eta egarria ondo
kendu bear doguz!**
— On egin!!!
— **Eskerrik asko!!!**





— Lagunak!
Ondo bazkaldu dozue?
— **Bai, ederto ipiñi dozu.
Etxekandrea,
guk gosea kendu dogu,
bazkari ona ipiñi dozu.**

| | |
|---|---|
| IPIÑI DOT. | KENDU DOT. |
| IPIÑI DOZU. | KENDU DOZU. |
| IPIÑI DAU. | KENDU DAU. |
| IPIÑI DOGU. | KENDU DOGU. |
| IPIÑI DOZUE. | KENDU DOZUE. |
| IPIÑI DABE. | KENDU DABE. |

## Maia KENDU, KENTZEN, KENDUKO.

— Mirentxu!!!
— **Zer nai dozu, ama?**
— Lagunak bazkaldu dabe?
— **Bai, bazkaldu dabe.**
— Ondo jan dabe?
— **Bai, ederto jan dabe,
baita edan be.**

— Maia kendu dozu?
— **Bai, ama, kendu dot.**
— Ontziak be kendu dozuz?
— **Bai, ontziak kendu dodaz.**
— Gatza be kendu bear da.
— **Bai, ama, kenduko dot.**



### ABESTIA

**Beti ezkamak kentzen,
kentzen, kentzen...
Nor gara gu?
Zer gara gu?
Bermeotarrak gara gu.
Nor gara gu?
Zer gara gu?
Euskotarrak gara gu!!**





## IKASI eta JAKIN

**Nik asko ikasi dot.**
**Zuk asko ikasi dozu.**
**Berak asko ikasi dau.**

**Guk asko ikasi dogu.**
**Zuek asko ikasi dozue.**
**Eurek asko ikasi dabe.**

## IKASI-IKASTEN-IKASIKO-



Imanol'ek liburua dauka aurrean.
Imanol'ek asko ikasten dau.
Ikasi ta ikasi, jakin egiten da.

— Imanol, zuk asko ikasi dozu?
— **Bai, nik asko ikasi dot.**
— Zer ikasi dozu?
— **Gauza asko ikasi dodaz.**
— Bai, zuk asko ikasten dozu, eta orain zuk asko dakizu.
— **Zuek ez dozue ikasi nai, eta zuek ezer ez dakizue. Gizon ori ikusten dozu? Ba, gizon orrek asko ikasi dau, eta orain orrek asko daki. Gizon ori jakintsua da. Nik be jakintsua izan nai dot, eta asko ikasi bear dot.**

**Gizon au jakintsua da.**

**Nik asko dakit.**
**Zuk asko dakizu.**
**Berak asko daki.**
**Guk asko dakigu.**
**Zuek asko dakizue.**
**Eurek asko dakie.**



Jakin nai ba'dozu, ikasi egin bear dozu.
Asko ikasten ba'dozu, asko jakingo dozu.
Gitxi ikasten ba'dozu, gitxi jakingo dozu.
Asko jakiteko, asko ikasi bear da. Ikasi ta jakin.

— Gabon, gizon jakintsuaren etxea au da?
— **Gabon, lagunak, zer nai dozue?**
— Guk jakintsuak izan nai dogu. Asko jakin nai dogu.
— **Asko jakin nai ba'dozue, asko ikasi bearko dozue. Jakintsuak asko jakiteko, asko ta asko ikasten dabe. Asko ikasi eta asko jakin. Gitxi ikasi eta gitxi jakin. Au da zuek ondo jakin bear dozuen gauza.**
— Guk asko ikasiko dogu.
— **Zenbat dakizue? Asko dakizue?**
— Gitxi ikasi dogu, eta gitxi dakigu. Ikasteko zer egin bear dogu?
— **Liburuak erosi. Aurrera mutillak! Ikasi ta ikasi, astoak be ba-daki.**



## JAKIN-JAKITEN-JAKINGO-

| | | |
|---|---|---|
| **Nik** | **ba-dakit.** | **Ez dakit.** |
| **Zuk** | **ba-dakizu.** | **Ez dakizu.** |
| **Berak** | **ba-daki.** | **Ez daki** |
| | **ba-dakigu.** | **Ez dakigu.** |
| | **ba-dakizue.** | **Ez dakizue.** |
| | **ba-dakie.** | **Ez dakie.** |



Elene'k ez dau nai ikasi.
Elene'k ezer ez daki.

— **Italia'ko uriburua zein da? Ba-dakizu, Elene?**
— Ez, ez dakit.

— **Elene, zuk ezer ez dakizu!!!**

# IDATZI-IDAZTEN






Neskatil polit au
Leire da.
Iruña'n bizi da.
Leire'k euskeraz
ez dau jakin,
baiña ikasi dau.

— Leire, orain zuk
zer egiten dozu?
— **Nik orain
idatzi egiten dot.**
— Zer idazten dozu?
— **Nire lagun batentzat
eskutitza
idazten dot. Nik
euskeraz idazten dot.**



## IDATZIKO

Iruña'n

Garbiñe nire laguna:
Zu zelan zagoz?
Ni oso ondo nago.
Nik ikastolan euskeraz
itz egiten eta idazten
ikasi dot.
Zuk euskeraz ikasi dozu?
Zu noz etorriko zara
Iruña'ra?
Agur, Garbiñe. Ikusi arte.
Goraintziak.

Leire'k



# IRAKURRI,







# IRAKURTEN - IRAKURRIKO

— Paul, or bakarrik zer egiten dozu?
— **Emen bakarrik nik irakurri egiten dot.**
— Zer irakurten dozu?
— **Ipuiñak irakurten dodaz. Oso politak dira.**
— Ipuiñak zuk euskeraz ala erderaz irakurten dozuz?
— **Nik beti euskerazko ipuiñak irakurten dodaz.
Eta zuk euskeraz irakurten ikasi dozu?**
— Bai, nik euskeraz irakurri ondo egiten dot, baiña
idatzi ez dot ondo egiten. Baiña ikasiko dot.
Zuk euskeraz idazten be ikasi dozu?
— **Bai, nik euskeraz itz egiten ondo ikasi dot,
irakurten be ikasi dot, eta idatzi ez dot txarto
egiten. Euskeraz idaztea erreza da.**
— Paul, eta ipuiñ liburu orreik non erosi dozuz?
— **Ipuiñ liburu oneik ez dodaz erosi. Etxean euki dodaz.
Euskeraz ondo ikasi nai ba'dozu, euskeraz itz egin,
irakurri eta idatzi bear dozu, eta ikasiko dozu.**



# SARTU

## SARTZEN, SARTUKO

| | | |
|---|---|---|
| Ni | sartu | naz. |
| Zu | sartu | zara. |
| Bera | sartu | da. |
| Gu | sartu | gara. |
| Zuek | sartu | zarie. |
| Eurak | sartu | dira. |

USOA SARTU DA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nik | sartu | dot | usoa. | Nik | sartu | dodaz | usoak. |
| Zuk | sartu | dozu | usoa. | Zuk | sartu | dozuz | usoak. |
| Berak | sartu | dau | usoa. | Berak | sartu | dauz | usoak. |
| Guk | sartu | dogu | usoa. | Guk | sartu | doguz | usoak. |
| Zuek | sartu | dozue | usoa. | Zuek | sartu | dozuez | usoak. |
| Eurek | sartu | dabe | usoa. | Eurek | sartu | dabez | usoak. |

— Nor sartu da?
— Usoa sartu da.
— Nortzuk sartu dira?
— Usoak sartu dira.

Nork sartu dau usoa?
Nik sartu dot usoa.
Nork sartu dauz usoak?
Nik sartu dodaz usoak.
Nortzuk sartu dabe usoa?
Guk sartu dogu usoa.
Nortzuk sartu dabez usoak?
Guk sartu doguz usoak.

NIK SARTU DOT USOA







USOA URTEN DA

# URTEN

## NI URTEN NAZ
## NIK ATERA DOT

— Txomin, usoak usategitik zuk atera dozuz?
— Ez, aita, nik ez dodaz atera. Atea zabalik egon da, eta eurak urten dira.

Nire usoak politak dira:
Usategira nok sartzen dauz?
Eurak bakarrik sartzen dira.
Usategitik nok ateraten dauz?
Eurak bakarrik urteten dira.

Usoa usategira nok sartu dau? ....... Zuk sartu dozu?
Usoa usategira nik ez dot sartu ..... Bera sartu da.
Usoak usategira nok sartu dauz? ....... Zuk sartu dozuz?
Usoak usategira nik ez dodaz sartu .. Eurak sartu dira.

Usoa usategitik nok atera dau? ....... Zuk atera dozu?
Usoa usategitik nik ez dot atera ..... Bera urten da.
Usoak usategitik nok atera dauz? ...... Zuk atera dozuz?
Usoak usategitik nik ez dodaz atera .. Eurak urten dira.

Ni etxetik
urten naz.
Usoa usategitik
urten da.
Nik usoa
usategitik
atera dot.
Txomin'ek usoa
usategitik
atera dau.
Alde, alde, uso polita!
Egaz egin bear dozu!!!

# ATERA



TXOMIN'EK USOA ATERA DAU



— Mariñelak, nora zoaze? Nora joan bear dozue?
— **Urrutira joan bear dogu: Ameriketara. Bai, Indietara.**
— Eta Ameriketatik noiz etorriko zarie?
— **Ori ez jakin!!! Ai! Nire biotza negarrez daukat.**
— Biotza zergatik negarrez, mariñela?
— **Ai! Ondarru, gure erri polita! Nire erri maiteena!**
**Ez dot, ez dot nik ikusiko zure plai ederra.**
**Agur nire seme-alaba eta lagun maiteak!**
**Agur, Antigua'ko Ama laztana! Zerutik lagundu!**
**Agur, agur, agur, Ondarrua'ko itxaso bazterra!**
— Ez negarrik egin, mariñela! Bai, etxera etorriko zara. Jaungoikoa lagun, zure seme-alabak eta lagunak ikusiko dozuz, eta poztuko zara.
— **Boga, boga, mariñela!!!**



# BOGA - BOGA




**Boga, boga, mariñela, mariñela,**
**joan bear degu urrutira, urrutira,**
**bai Indietara, bai Indietara.**
**Ez det, ez det, nik ikusiko zure plai ederra,**
**plai ederra.**
**Agur, agur, Ondarrua'ko itxaso bazterra.**
**Agur, agur, Ondarrua'ko itxaso bazterra.**
**Mariñela! BOGA! Mariñela!!!**

Nire kristiñau maiteak:
Jaungoiko gure Jauna on-ona da,
eta zuek be on-onak izan bear dozue.
**Bai, on-onak izan zaiteze.**
Jesukristo gure Jaunak esan dau:
**Ni naz artzaiñ ona. Ardi onak izan zaiteze.**



Ni naz
Zeruko bidea.

**Zeruko bidetik
ibilli zaiteze.**

Ni naz
Zeruko atea.

**Zeruko atetik
sartu zaiteze.**

**Kristiñau ona izan nai ba'dozu:
etxean seme-alaba ona izan zaitez,
kanpoan lagun gaiztoekaz ez zaitez ikilli,
eta aitaren eta amaren esanean bizi zaitez.**









# EGIZUZ - EGIZUE - EGIZUEZ

**Idoya, etorri zaitez. Entzun egizu.**
**Zure amaren itzak biotzean ondo artu egizuz.**

**Etxean alaba ona izan zaitez.**
Aita, ama, asko maitatu bear dozuz.
**Zure etxeko guztiak biotz-biotzez maitatu egizuz.**
**Ikastolara joan zaitez.**
An irakurten, idazten eta abesten ikasi bear dozu.
**Ikastolan gauza asko ikasi egizuz.**
**Eleizan ondo egon zaitez.**
Eleizan Jaungoikoagaz itz egin bear dozu.
**Eleizan Zeruko Aitagaz itz egizu.**
**Zure lagunakaz be lagun ona izan zaitez.**
Guzurrik ez dozu esan bear. **Beti egia esan egizu.**

**Umeak, etorri zaiteze. Entzun egizue.**
**Nire berbak ondo artu egizuez.**
**Etxean, eleizan eta ikastolan euskeraz itz egizue.**
**Euskal abestiak politak dira, eta abestu egizuez.**
**Zuen aita eta ama eta erria maitatu egizuez.**

# EROAN - EROATEN - EROANGO.



Igandean jolasean
gure jantzi garbiak
zikindu egiten doguz.
Gaur astelena da,
eta gure amak
gure jantzi zikiñak
garbitu egin bear dauz.

**Mirentxu,
zuk jantzi garbiak
zikindu
egin dozuz,
eta orain zure
jantzi zikiñak
garbitu
egin bear dozuz.**

**Jantzi zikiñak
garbitu egizuz.**

| JANTZI ZIKIÑAK. | GARBIKIÑA. |
|---|---|



**Mirentxu, sukaldera joan zaitez,
an otzara bat artu egizu,
eta jantzi zikiñak otzaran
garbikiñera eroan egizuz.**

Zure amak jantzi zikiñak artu
eta garbikiñera sartuko dauz.
Garbikiñak ondo
garbituko dauz.

**Mirentxu'k jantzi zikiñak
otzaran artu dauz,
eta garbikiñera eroan dauz.
— Mirentxu, nora eroan dozuz?
— Garbikiñera eroan dodaz.**



# EKARRI - EKARTEN - EKARRIKO





| JANTZI GARBIAK |
|---|

— **Mirentxu, etorri zaitez eta entzun egizu:**
— Zer nai dozu, amatxo?
— **Gure garbikiñak jantzi zikiñak garbitu dauz,
eta zuk jantzi garbiak otzaran sartu egizuz,
eta ekarri egizuz.**
— Bai, ama, laster ekarriko dodaz.

— **Mirentxu, jantzi garbiak ekarri dozuz?**
— Bai, ama, ekarri dodaz. Jantzi garbiak emen dagoz.
Ikusi egizuz. Garbi-garbi dagoz.
— **Ondo dago. Orain jantziak lisatu egin bear doguz.
Zu, Miren, andia zara eta lisatzen ikasi egizu.**

**Jantziak zuk zikindu dozuz? Zuk garbitu egizuz.
Jantziak zuk eroan dozuz? Zuk ekarri egizuz.
Zuk zikindu eta amak garbitu? Ori ez dago ondo.
Zuk eroan eta amak ekarri? Ori txarto dago.**

Erbia, zergatik zu beti arin-arin ibilten zara?
Bai, txakurrak datoz atzetik. Bai, arin ibilli zaitez.

**Uso zuria,
nora zoaz?
Ez zaitez joan
mendira.**

**Mendian
edurra dago.**

**Etorri zaitez
gure etxera.**







Paul, zuk
zaldi gaiñean
nora joan
bear dozu?

Donostia'ra
joan bear dot.

Joan bear
ba'dozu,
laster
joan zaitez.




Uso zuria, esaizu,
nora joaten
zara zu?
Euskalerriko
mendi guztiak
edurrez beterik
dituzu.
Gaur gaberako
zure ostatua
gure etxean
ba-dozu.

**Mutillak, zuek
beribillean
arin-arin
ibilten zarie.**

**Mutillak,
beribillean
kontuz ibilli!
Astiro
ibilli zaiteze.**







Itxasontzia emen dago, eta Ameriketara joan bear dot.
Zure ama bizi da. Ameriketatik laster etorri zaitez.



Barekurloa mendira doa.—Mendira?.—Bai, zuk barre egizu,
baiña astiro-astiro mendira joango da. Ori jakin egizu.







**Gizontxoa, zu
zergatik bidean
ibilten zara
beti oiñez?
Astotxo bat
erosi egizu,
gero burdia
artu egizu,
eta ederto
ibilliko zara.**

Barekurloa eta
erbira mendira
joan dira.
Barekurloa
astiro-astiro
joan ta joan
mendi puntan
ikusi dogu.

Erbi ariña guk
ez dogu ikusi.




Zure lagun au
ikusten dozu?
Bere burdian
ederto dabil.
Arre, arre!
Astotxoa,
arin-arin
egizu.

**Nik astoa
ez dot nai.**







**Nik egazkiña
erosiko dot,
eta egaz
Ameriketara
joango naz.**

Joseba, nora zoaz? Paris'era? Bultzia artu egizu,
eta bidean leiotik burua ez egizu atera. Kontuz gero!!!

# ASI.






Gure erriko jaiak asi dira, eta
guztiok dantzan egin bear dogu.
**Gazteak dantzan egin nai dozue?**
**Dantzara etorri zaiteze!!!**
**Ea, txistulari, artu txistua**
**eta aurreskua asi egizu.**
**Mutillak eta neskak,**
**zarrak eta gazteak**
**dantzan asi zaiteze.**

Lenengo, ezpatadantzari bi
asiko dira.
Irugarrena, laugarrena,
boskarrena eta seigarrena
ezpatadantzari txikiak
izango dira.

**Oiñak arin-arin,**
**danok dantzan egin!!!**






Zazpigarrena, zortzigarrena...
amaikagarrena poxpoliñak dira.
Poxpoliñak neska dantzariak dira.
**Pelotaririk ez dago? Bai...**
**Amabigarrena eta amairugarrena**
**pelotari oso onak dira.**
**Azkenengo dantzariak anaiak dira.**

**Ai ene!!!**
**Jaiak**
**amaitu dira.**
**Amaia!!!**






# AMAITU



NI NINTZAN

ZU ZIÑAN

BERA ZAN

GU GIÑAN

ZUEK ZIÑIEN

EURAK ZIRAN



PERU LEN GAZTEA ZAN.



LEN NI TXIKIA NINTZAN.

Orain ni andia naz.





LEN TXITA TXIKIAK ZIRAN.

Peru orain zarra da.

Orain oillo andiak dira.

Peru len mutil gaztea zan. Orain gizon zarra da.
Peru'k esaten dau:
**Ai, ni len gaztea nintzan**
**eta jaietan lagunekaz mendira joaten nintzan,**
**eta mendian gora ta bera arin-arin ibilten giñan.**
**Gero arratsaldean menditik etorten giñan,**
**eta errian dantzan asten giñan.**
**Len bai ni ondo bizi nintzan. Orain txarto bizi naz.**



| | |
|---|---|
| **NIK** | **NEBAN.** |
| **ZUK** | **ZENDUAN.** |
| **BERAK** | **EBAN.** |
| **GUK** | **GENDUAN.** |
| **ZUEK** | **ZENDUEN.** |
| **EUREK** | **EBEN.** |






| | |
|---|---|
| **Nik** | **ama maite neban.** |
| **Zuk** | **ama maite zenduan.** |
| **Berak** | **ama maite eban.** |
| **Guk** | **ama maite genduan.** |
| **Zuek** | **ama maite zenduen.** |
| **Eurek** | **ama maite eben.** |

Nik pelota txiki bat euki neban.
Zuk ogi andi bat jan zenduan.
Berak urrutizkiñez itz egin eban.
Guk puztuki bat artu genduan.
Zuek liburu bat irakurri zenduen.
Eurek Gorbeia'ko gurutzea ikusi eben.

Ni Mirentxu naz, eta orain nire bizitza esan nai dot.

Ni ume txikia nintzan eta etxe zuri baten bizi giñan.
Gure ama on-ona zan, eta nik ama asko maite neban.
Nire nebea Iñaki zan. Iñaki ni baiño txikiagoa zan.
Iñaki'k be ama asko maite eban.
Guk biok gure ama biotz-biotzez maite genduan.
Nik, zeruko ama be. Andra Maria, asko maite neban.
Nik, «Agur Maria, graziaz betea» esaten ikasi neban.



**Nik amar pelota erosi nebazan.**
**Zuk guzur asko esan zenduzan.**
**Berak lantegian maiak egin ebazan.**
**Guk usoak usategitik atera genduzan.**
**Zuek dendan lau txapel erosi zenduezan.**
**Eurek ikastolan abesti politak ikasi ebezan.**

— Igandean zuek mendian zer egin zenduen?
— **Igandean guk mendian abestu egin genduan.**
**Gero mendi gaiñetik gauza asko ikusi genduzan:**
**erri txikiak, ibaiak eta baserri zuriak.**
— Eta zuek mendian zer jan zenduen?
— **Nire lagunak aragia eta arrautzak jan ebezan.**
**Nik gaztaia eta ogia jan nebazan.**
— Eta zer edan zenduen?
— **Mendiko ur garbia edan genduan.**

| | |
|---|---|
| **Nik** | **gurasoak maite nebazan.** |
| **Zuk** | **gurasoak maite zenduzan.** |
| **Berak** | **gurasoak maite ebazan.** |
| **Guk** | **gurasoak maite genduzan.** |
| **Zuek** | **gurasoak maite zenduezan.** |
| **Eurek** | **gurasoak maite ebezan.** |



| | |
|---|---|
| **NIK** | **NEBAZAN.** |
| **ZUK** | **ZENDUZAN.** |
| **BERAK** | **EBAZAN.** |
| **GUK** | **GENDUZAN.** |
| **ZUEK** | **ZENDUEZAN.** |
| **EUREK** | **EBEZAN.** |

JOAN ETORRI




Atzo joan-etorri ederra egin genduan:
Goizean Bilbo'tik urten, eta Gazteiz'era joan giñan.
Gazteiz'en gosaldu genduan. Akaitesnea artu genduan. Gazteiz Araba'ko uriburua da.
Gazteiz len erri txikia zan. Orain erri andia egin da.
Gazteiz'en lantegi barri asko ikusi genduzan.
Gero Gazteiz'tik Iruña'ra joan giñan.
Iruña'n ordu bi egin genduzan. Gauza ederrak ikusi genduzan. Iruña len Euskalerriko burua izan zan.
Orain Naparroa'ko uriburua da.
Gero Orreaga'tik Donibane Garazi'ra joan giñan.
Donibane Garazi Be-Naparroa'ko uriburua da.
Erri txikia, baiña oso polita da.

Baiona'n bazkaldu genduan. Baiona Lapurdi'ko uriburua da. An eleiza andi eta eder bat dago.
Zuberoa be ikusi nai genduan, baiña ez giñan joan.
Miarritze'ko ondartzan bai egon giñan.
Etorri Donostia'tik eta Eibar'tik etorri giñan.
Bai, atzo txango ederra egin genduan.
Egun ona egin eban. Eguzki ederrak argi egin eban.
Gure beribilla be bide guztian oso ondo ibilli zan.
eta gauza asko eta politak ikusi genduzan.
Janari onak jan, eta edari gozoak edan genduzan.
Nik bidean abesti asko abestu nebazan.
Lagun guztiok eguna poz-pozik eta alai emon genduan,
eta arratsaldean pozez beterik etxera etorri giñan.

# MENDIGOIZALEAK GARA GU.




Igandean bost lagun
mendira joan giñan.
Otz egiten eban.
Guk gabaz mendian
sua egin genduan,
eta berotu giñan.

Suaren ondoan bost lagunak bero-bero egon giñan.
An goian, zeru baltzean, izar txikiak argi egiten eben
eta zeru goitik gure abesti ederrak entzuten ebezan.
Txoritxoak euren abietan ixil-ixillik lo egiten eben,
eta guk be gero gure etxoletan lo egin genduan.



Guk mendira etxola bi
eroan genduzan.
Nik nire etxola txikian
ederto lo egin neban.
Nire lagunak be ondo
lo egin eben.

Goizean eguzki argia mendi gaiñean ikusi genduan, eta
guk esan genduan: «Egunon, eguzki, gure lagun maitea»,
eta eguzki jaunak barre egin eta guretzat esan eban:
«Egunon, mendigoizale gazteak. Joan aurrera, beti aurrera!».
Bai, igandean bost lagunak mendian oso pozik egon giñan.

# UDABARRIA



Urtearen aroak lau dira:
**udabarria, udea, udazkena, eta negua.**

Udabarria epela da.
Udabarrian lora politak ikusten dira, eta txoriak zugatzean abiak egiten dabez.

— Udabarrian gu Anboto'ko mendira joan giñan, eta mendi gaiñean Anboto'ko sorgiña ikusi genduan.
— **Sorgiña ikusi zenduan? Guzur ederra esan dozu. Guzurti andia zara zu.**

Udea beroa da.
Udan bero egiten dau.
Udan eguzki beroak mendiak eta itxasoko urak berotu egiten dauz.

— Udan nora joan ziñien?
— **Gu udan itxaso bazterrera joan giñan eta ondartzan jolas egiten genduan. Gero nik euskal ipuiñak irakurten nebazan, eta euskera ondo ikasi neban. Nire lagunak uda osoan ez eben ezer ikasi. Oso txarto egin eben. Udan be lan egin bear da.**

# UDEA





# UDAZKENA



Udazkena epela da.
**Udazkenean zugatzak sagar gorriz beterik egoten dira.**
— Udazkenean zer egin zenduen?
— **Errota txikiko errotariak sagar asko euki ebazan, eta sagarrak emon egiten ebazan. Guk sagarrak artu, eta gero pozik jan egiten genduzan. Errotaria gure laguna zan. Errota txikiko sagarrak, gorri-gorriak eta gozo-gozoak ziran. Nik amarentzat etxera sagar bat ekarri neban, eta gure amak pozik jan eban.**

Negua otza da.
Neguan otz egiten dau.
Neguan edurra egiten dau.
Edurra zuri-zuria da.
Edurrak neguan mendiak zuritu egiten dauz.
Neguan mendian otsoak ibilten dira.

— Neguan zer egin zenduan?
— **Neguan etxean egon nintzan. Mendian edurra egiten eban, eta ni aitagaz eta amagaz sukaldean bero-bero ederto egoten nintzan. Neguan astegunetan ni ikastolara joaten nintzan.**

# NEGUA





# TAN...TAN...TAN...

Ze ordu da?

I. ORDU BATAK.
II. ORDU BIAK.
III. IRURAK.
IV. LAURAK.
V. BOSTAK.
VI. SEIRAK.
VII. ZAZPIRAK.
VIII. ZORTZIRAK.
IX. BEDERATZIAK.
X. AMARRAK.
XI. AMAIKAK.
XII. AMABIAK.

Tan... tan... tan... Zer da? Ordularia da.
Donostia'ko Artzain Onaren eleizan
irurak dira.
Ordulari, abeslari, zorionak emon gizonari.



# EGUNA



Eguna da. Argi dago.
Nire ordularian
goizeko zortzirak dira.
Eguzkiak argitu dauz
mendiak eta erriak.

— Egunon, Patxi,
ze ordu da?
— **Zortzirak dira.**
— Egun ederra gaur.
— **Bai, atzo egun txarra,**
**eta gaur egun ona.**
**Biar, ona ala txarra?**

# GAUA



Gaua zan.
Illargiak eta izarrak
zeruan
argi egiten eben.
Eta ni oean gaixorik
egon nintzan.
Gaua luzea zan.
**Tan... tan... tan...**
**ordularia.**
**Ze ordu da?**
**Gaueko amabiak dira.**
**Gaua luzea zan.**

**Atzo osagillea etorri zan, eta esan eban:**
**«Gaur zu ez zagoz ondo, baiña biar ondo egongo zara».**
Baiña ni atzo gaixorik egon nintzan, eta gaur be ni gaixorik nago. Biar ondo egongo naz? Ez dakit nik.




......Katutxo txikitxua tellatu gaiñean.
Miau, miau, miau, tellatu gaiñean.
......Katutxoa miau, miau, miau, tellatu gaiñean.
......Txakurtxo txikitxua sokakin lotuta.
Guau, guau, guau, sokakin lotuta.
......Txakurtxoa guau, guau, guau, sokakin lotuta.
......Astotxu txikitxua urunez beteta.
A, ja, ja, urunez beteta.
Astotxua a, ja, ja, urunez beteta.



# ERROTATXOA




(Batek) Errotara joan nintzan, zer ikusi neban?
(Guztiak) Errotatxoan zuk zer ikusi zenduan?
(Batek) Paitatxo txikitxua uretan jostetan.
Kua, kua, kua, uretan jostetan.
(Guztiak). Kua, kua, kua, uretan jostetan.
(Batek). Paitatxoa kua, kua, kua, uretan jostetan.
(Guztiak). Paitatxoa kua, kua, kua, uretan jostetan.

# BELEN





Jesus Umea Belen'en jaio zan
Txabola zar baten jaio zan.
Jesus'en ama Maria izan zan.
Jose be Belen'en egon zan.
Astoa eta idia Jesus Umearen
lagunak izan ziran.
Aingeruak abestu eben Belen'en.
Zer abestu eben?
**Aintza Jaungoikoari Zeru goian,**
**eta bakea gizon onari lurrean.**

Artzaiñak ardiakaz menditik Belen'era etorri ziran.
«Iru Erregeak» be izar eder bat ikusi eben zeruan,
eta Belen'era etorri ziran.
Erodes gaiztoak Jesus Umea il nai eban,
baiña Jesus Ejito'ra joan zan, eta an egon zan.
Gero Ejito'tik etorri zan eta bere ama Maria'gaz
eta Jose'gaz Nazaret errian bizi zan.
Jesus andia egin zan eta lan egiten eban.





Jesus Jaungoikoa zan,
eta mirari asko egin ebazan:
gaixoak sendatu ebazan,
itxasoaren gaiñean
ibilli zan,
eta illak biztu ebazan.

Jesus iru urtean
Palestina'ko errietan
ibilli zan, eta an bere
dotriña irakasten eban.
Dotriña ona irakatsi eban.

Jesus, Buruazurtegi mendian il zan.
Gizon gaiztoak gurutzean
il egin eben.

Baiña irugarren egunean
biztu egin zan, eta gero
Zerura joan zan.

Orain Jesus Jaungoikoa
Zeruan dago, eta beti biziko da.
Jesus ez da ilgo.

Jesus Jaungoikoa eta gizona
izan zan. On-ona izan zan.
Orain be Zeru goian Jesus
gure lagun ona da.

Guk Jesus maite dogu.
Bai, guk Jesus maite bear dogu.
Gu Jesus'en lagun onak gara.

Agur Jesus! Zeruan ikusi arte!!!










## JOSEBA IZAR-GIZONA DA, ETA ILLARGIRA DOA.

— Agur, Joseba, izarraren gaiñean nora zoaz?
— **Agur, agur, agur, illargira noa.**
— Illargia goian dago!!!
— **Bai, baiña ni izarraren gaiñean gora eta gora beti aurrera joango naz.**
— Joseba, eta zuk illargian zer egingo dozu?
— **Nik illargian egun osoan jolas egingo dot.**
— Baiña jolas egiteko an lagunik ez daukazu.
— **Nire jolas-lagunak izarrak izango dira.**

— Joseba, illargia txikiagoa da ludia baiño.
— **Bai, egia esan dozu: illargia txikiagoa da ludia baiño. Baiña politagoa da. Zuri-zuria da.**
— Joseba, zu gero eguzkira be joango zara?
— **Ez, ni eguzkira ez naz joango.**
— Orduan illargian biziko zara?
— **Bai, illargian biziko naz.**
— Eta illargitik etxera noiz etorriko zara?
— **Ni etxera ez naz etorriko.**
**Ni beti illargian biziko naz.**

— Joseba, zu izar-gizon andia zara.
Bai, illargira joan zaitez, eta an bizi zaitez.
— **Agur, agur, agur, illargira noa.**



# LAU ABESLARIAK

Azpe'ko errotan
asto zar bat
bizi zan.
Etxeko jaunak,
astoa zarra zan
eta il nai eban.
Baiña asto zarrak
il nai ez eta
mendira joan zan.
Gure astoa
mendian
bakarrik
bizi zan.

Astoak mendian txakur zar bat ikusi eban:
— **Egunon txakur jauna. Abeslaria zara zu?**
— Bai, nik «guau guau» abesten ikasi dot.
— **Etorri zaitez nigaz.**
Eta astoa eta txakurra lagun egin, eta
mendiko bideak ibilli ta ibilli aurrera joan ziran.

Astoak eta txakurrak katu zar bat ikusi eben.
— **Egunon katu jauna. Abeslaria zara zu?**
— Bai, nik «miau, miau» abesten ikasi dot.
— **Etorri zaitez gugaz.**
Eta astoa, txakurra ta katua lagun egin, eta
mendiko bideak ibilli ta ibilli aurrera joan ziran.

Astoak, txakurrak eta katuak oillar zar bat ikusi eben.
— **Egunon, oillar jauna. Abeslaria zara zu?**
— Bai, nik «kukurruku» abesten ikasi dot.
— **Etorri zaitez gugaz.**
Astoa, txakurra, katua eta oillarra lagun egin, eta
mendiko bideak ibilli ta ibilli aurrera joan ziran.

Etxe bat ikusi eben, baiña lapurren etxea zan.
Lapurrak bazkari gozoa jaten eben.
Astoa, txakurra, katua eta oillarra gose ziran,
eta esan eben: zer egingo dogu?
Txakurra astoaren gaiñean, katua txakurraren gaiñean,
eta oillarra katuaren gaiñean ipiñi, eta asi ziran:

**Astoa arrantzaka. Katua miauka, eta**
**Txakurra aausika. oillarra kukurrukuka.**

Lapurrak bildurrez beterik etxetik arin joan ziran,
eta gure lau abeslariak bazkari ederra jan eben.
Gero beti lapurren etxean bizi ziran.

Egia ala guzurra? Begi bien erdian suurra.

# TXANO GORRITXO

